

HELBURUAK

1. Plazako gai-jartzaile lana eta ofizioa prestigiatzea.
2. Plazaz plaza aritzeko gai-jartzaile taldea trebatzea.
3. Plazetako gaien inguruko gogoeta bideratzea

METODOLOGIA

Josu Goikoetxea gai-jartzailea izango da zuzendaria. Amaia Agirre bertsolaria eta gai-jartzaile lanetan aritua izango du laguntzaile, bertsolari eta gai-jartzaileen arteko harremanak indartu nahi direlako.

Saioak hileko bigarren larunbat goizetan izango dira.

45 euroko matrikula izango du gai-jartzaile eskolak.

IZEN-EMATEA

sustapena@bertsozale.com helbidean eman behar da. Izen-emateko azken eguna: Irailak 22.



gai-jartzaile
eskola



EMANALDIAK ETA EDUKIAK

● 1. JAIALDIAREN EGITURA

URRIAK 11, AMASA-VILLABONA

Nola kudeatzen dira saio baten eduki, erritmo eta giroaren kontrola? Zein dira etxean saio bat prestatzeko gakoak? Zerk ematen dio pisua saioari, zerk arnasa? Non dago oreka? Nola egokitzen da etxetik ekarritakoa plazara? Nola eta zeren arabera irakurri memento bakoitza?

10:00-11:00 Hitzaldia: Aitor Sarriegi.

11:30-13:00 Talde dinamika: Jaialdien egituren azterketa.

● 2. GAIEN ETA HITZEN ERABILERA IDEOLOGIKOA

AZAROAK 8, DURANGO

Zergatik jartzen ditugu gai batzuk eta ez besteak? Zein hitz aukeratzen ditugu gai horiek jartzerakoan? Neutralak al dira hitzak? Zer islatzen dute jartzen ditugun (eta beraz jartzen ez ditugun) gaiak? Zer diote gure hitzek?

10:00-11:00 Hitzaldia: Iñigo Aranbarri.

11:30-13:00 Gogoeta: Maialen Lujanbio.

● 3. GAIEN PLANTEAMENDUA

ABENDUAK 13, AMASA-VILLABONA

Zein da gaiaren atzean dagoen intentzioa? Zerk motibatzen du bertsolaria, gai-jartzailea, entzulea? Noiz da fikzioa lagungarri, noiz traba? Noiz da errealitate gordina eraginkorra, noiz muga? Zer eska dakioke bertsolariari, zer ez? Nola ziurtatzen du gai-jartzaileak bertsolariaren garapena ahalik eta aberatsena izatea?

10:00-11:00 Hitzaldia: Unai Iturriaga.

11:30-13:00 Ariketak: Plazako saioetatik ateratako hamar kasuistika molesto.

● 4. SAIOAREN FUNTZIOA ETA FORMULAZIOA

URTARRILAK 10, SENPERE

Zein dira jaialdiaren funtzioa, kontestua eta logika? Zeintzuk gaurkotasunaren aukerak eta arriskuak? Mundu zabaleko aktualitateak zein leku du saioa egiten den herrian? Zein dira lekuko interes-gune, erreferentzia, eta gaiak? Nola ikusten da mundua saioa dugun herritik? Nola lortu dezakegu baleko informazioa?

Zein da lehen ideiatik gaia formulatzerainoko bidea? Zenbateko eragina du formulazioak gai bat jorratzeko moduan? Zein da bertsolariak behar duen informazioa? Zerk janzten du gai bat, zerk zabaldu, zerk estutu?

10:00-11:00 Hitzaldia: Amets Arzallus.

11:30-13:00 Gogoeta: Josu Goikoetxea.

● 5. LITERATURA ABIAPUNTU

OTSAILAK 14, GASTEIZ

Bestelako arte-adierazpenak etengabeko iturri dira bai bertsolariarentzat bai gai-jartzailearentzat. Horietako bat da literatura. Irakurriz almazena hornitzen dugu. Zer ikas dezakegu idazleengandik? Nolakoa da haien sormen prozesua? Nola sortzen da haiengan sormenaren txinparta? Posible al da literatura eta bertsogintzaren arteko zubirik eraikitzea?

17:00-18:00 Hitzaldia: Harkaitz Cano.

18:00-19:00 Hitzaldia: Eider Rodriguez. Literatur testuetatik gaiak jartzen.

19:00 Bertso saioa: Eider Rodriguez, Nerea Elustondo, Jon Maia.

● 6. GORPUTZ ESPRESIOA

MARTXOAK 14, IRUÑEA

Nola ezartzen da gidaritza oholztan? Nola transmititzen dira konfiantza eta ziurtasuna? Nola bideratzen dira gai batetik besterako trantsizioak? Nola laguntzen dio esan-moldeak esan-nahiari? Nola jartzen dira boza eta gorputz jarrera gaiaren zerbitzura? Zer espresatzen dute bertsolarien eta gai-jartzaileen gorputzek?

10:00-11:00 Hitzaldia.

11:30-13:00 Ariketa praktikoa: Bertso saioetatik ateratako adibideen lanketa.

● 7. BERTSO SAIOAREN PRESTAKETA

APIRILAK 11, AMASA-VILLABONA

Amasa-Villabonan egingo den saio baterako gaiak prestatuko dira taldean.

15:00 Gaiak prestatzea.

19:00 Bertso saioa.

● 8. NORBERE BIDEA

MAIATZAK 16, AMASA-VILLABONA

Gai-jartzaile eskolan jokamolde orokorrak eman dira. Baina norberak bere bidea aurkitu behar du. Zer gai-jartzaile klase izan nahi dut? Zerk ezaugarritzen nau ni? Zerk bereizten besteengandik? Zer eman nahi diot nik plazari? Zer nolako saioak ahalbideratu nahi ditut?

10:00-11:00 Hitzaldia: Josu Goikoetxea.

11:30-13:00 Eztabaida: Plazako jardueraren norabidea.